

ARRASATEKØ HİKA

·põltsikuen·

INGO
JONAU?

BAI, INGO
JUAU!



SARRERIE

Arrasateko hika poltsikuen

Liburuxka honen helburue hika berreskuraketie da. Izen be, hittanue arriskuen dau gure herrixen: gizonezkuen arteko hikak ez dauko oso osasun ona eta andrazkuen hikaren egoerie bereziki txarra da. Ezer egitten ez badogu, urte gutxixen desagertuko da. Danok daukou zer ikasixe, geure-geurie dan hizkera eder horri eusteko. Mobillerako Appa hi! aplikaziñue atara geuen, baiñe papeleko euskarrixe be biherrezkue ikusten dogu. Helburue, herrittar gutxixoi hikaren bi aldaerak ikesteko tresna erabilgarri bat eskaintzie: informaziño orokorra eta adizki nagusixek. Ikasketa on!

Gainbeheriaren arrazoi nagusixek

- 1-Euskeriaren desprestigiue, erderiaren aurrien (gerraosteko urtietan, erderarako joera haundixe)
- 2-Basarrittarren hizkeratzat hartzie, eta basarrittarrak gutxiestie
- 3-Hizkera takarra eta errespetu gutxikue zala pentsetie: ez fiñe
- 4-Erregistruaren beraren mugak: hika ezin jako edozeiñi egin.

Etxe asko eta askotan etena egon da hikaren transmissiñuen (kaleko etxietan basarrixetan baiño lehenago). Pentsetan euen ez zala aproposa.



Neskak hika egittie okerrague mutillek hika egittie baiño: zeatik?

- 1-Neskak hika egittie oso gaizki ikusitte egon da. Emakumiek fiñe eta esanekue izen biher euen. Mutillek askatasun gehixago euki dau betik.
- 2-Hika mutillen kontu moduen ikusi da, eta guraso batzuk -beste askok ez- semiekin hika egitten jarraitu daue; alabakin, barriz, ez.
- 3-Hika etxien jasoten ez euen mutil askok kalien ikesten euen, sozializaziño-eremuetan: tabernatan, soziedadietan, futbolien, ehiza-lagunekin, kuadrillakuekin...
- 4-Emakumiek puntura arte ez dau euki mutillen moduko sozializaziño-eremurik. Hika eremu intimora mugatu da: etxie eta konfiantzazko lagunek.

Ikuspegi aldaketie: eskerrak!

Hikaren gaiñeko ikuspegixe aldatu egin da. Oin baloraziñue positibue da: ez dogu desprestigiuarekin lotzen. Gero eta gehixago die hika jakittie gure leukienak. Baillarako herri batzuetako mutil gaztien ustez, guaixue da, identidade-marka bat.



HIKA: LAGUNARTEKO TRATAMENTUE

Hiru tratametu edo erregistro ebali die Arrasaten:

- 1-Berorika. Errespetuzkue. Estatusa marketako: abadiet, medikuei, maisuei berba egitteko ebalten zana... Gaur egun galdute dau.
- 2-Zuka. Zabaldueña, neutruet, egoera guztixetarako balixo dauena.
- 3-Hika: lagunartekue, informala.



Zer emuten dau hikak?

Bizittasune, aberastasune, konfiantzie, konplizidadie, hurreko sentidutie, identidate-marka bat, lotura bat zuztarrekin, bardinttasunaren aldeko kiñu bat, gure hizkuntziaren ezagupidie, komuniketako baliabidie...

Genero-markie, hikaren berezittasune

Hittanoz edo hika gabitzenien, mutillei ala neskiei zuzendu, aditz-formie ez da bardine:

“Ingo jonau?” (Egingo jonagu) > emakumezkuei (‘noka’ esaten dutsie batuen)

“Ingo juau?” (Egingo juagu) > gizonezkuei (‘toka’ esaten dutsie)

Bardin da berbetan dabillena mutille ala neskie dan.

Zeñi zuzendu, hori da inporta dauena: horrek baldintzatuko dau aditz-formie. Horri ‘alokutibue’ be esaten jako: zurekin berbetan dauena zein dan kontuen hartute, aditzei marka bat edo bestie jartie.



Biren arteko tratue

Hika egittie biren arteko tratue da. Ez daukogu danekin hika egin biherrik. Eta gizonezko edo emakumezko sentiduten ez dienak be errespetetie komeni da.

ERABILLERA-OHITTURAK

Zeiñekin bai eta zeñekin ez?

Hika ez jako edozeiñi egin izen: bardiñen artien eta konfiantza-giruen ebalu izen da. Hori bai, gaur egunien gero eta salbuespen gehixago egitten die; izen be, hikaren biziraupenerako, tradiziñue aldaketan doie.

EZ

- 1- Gurasuei eta askoz nagusixaguei ez (oin badauz gurasuei hika egitten dutsienak, ikesteko).
- 2- Ezezagunei normalien ez (mutillen artien nahiko zabalduete dau).
- 3- Giro oso formaletan ez eta "estatus sozial" haundixague daukienei be ez. Adibidez, alkatiei, medikuei, abadiiei... (hau be gero eta gutxiago beteten da).
- 4- Umiei bai, baiñe oso txikiñei ez: koskortu artien ez.
- 5- Senar-emaztiek euren artien ez: ezkondu aurretik bai, baiñe ostien ez (badauz hika egitten dauenak be).
- 6- Komunikabidietan, hitzaldixetan, jente aurrien... ez.



BAI

- 1- Gurasuek eta nagusixek seme-alabai eta gaztiei bai.
- 2- Anai-arreban artien bai.
- 3- Lagunen artien bai, edade diferentzia egon arren (adibidez, lankidien artien).
- 4- Animalixai bai.
- 5- Norbere buruari bai.

Gaur egungo ebalera okerrak:

- Neskai mutillei moduen egittie hika: "Ze jak, ba?"
- Zu eta hi nahastute ebalte: "Ze habil? Burutik sano zauz?"
- Hikako formak ez dagokixonien ebalte. Adibidez, menpeko esaldixetan: "jakena jak"



ADITZ GUZTI-GUZTIXEK HIKA?

ZU-ren ordeaz, betik HI

Hika gabitzenien, bigarren personie ez da ZU, HI da:

*Zu etorri za > Hi etorri **haz***

HI personiarekin, hikako aditz-formak ebaliko dittugu betik, baitte menpeko esaldixetan be: *"Mendire fan ez **hazelako** damutute **hau**".*

1. eta 3. personetako adizkixek be hikako formetan esaten die:

NI	<i>"Gaur berandu jaiki non/k"</i>
HA	<i>"Mikel be etorriko don/k"</i>
GU	<i>"Egingo jonau/juau?"</i>
HAREIK	<i>"Hareik guri begire jazen/k"</i>

ZUEIK betik da ZUEIK. 2. personako pluralien eziñezkue da aditzek hika ifinttie.

EGON HAI IXILIK! ZUEIK
ARTABURU BATZUK ZARE!

?

Hi, DAUENA JAK!



Menpeko esaldixetan, HI danien bakarrik

Menperagaillu baten bitartez bi esaldi alkarketan dienien, bat menpekue izeten da eta bestie nagusixe. Hika gabitzenien, esaldi nagusiko aditze hikako forman ebaliko dogu betik (ZUEIK ez bada). Menpeko esaldiko aditze, barriz, HI danien bakarrik ebaltan da hikako forman.

NI	Etorten nonanien/nokenien , berba egingo jonau/juau Etorten nazenien , berba eingo jonau/juau
NIK	Ez jakiñat zer egin biher jonaten/juaten lan barik geraketan banon/k Ez jakiñat zer egin biher doten lan barik geraketan banon/k
HA	Gosie jaukenalako/jaukekelako etorri don/k hain aguro Gosie daukolako etorri don/k hain aguro
GU	Zoratute gazenala/gazekela esan justen/k! Zoratute gauzela esan justen/k!

Gehixenetan samurre da jakittie aditze menpekue dan ala ez, akaberan markaren bat eukitten dauelako (-ELA, -ELAKO, -ENIEN, -ETIK, -EN...), baiñe ez betik.

HAREK	Maddik egin jonan/juan lanaren ordaiñe jasoteko jauken/k oinddio. Maddik egin euen lanaren ordaiñe jasoteko jauken/k oinddio.
-------	--

Baldintzatan, galderatan eta agindduetan bai

Herri batzuetan (eta euskera batuen) baldintzazko aditz-formatan ez da hikako formarik ebalten, baiñe Arrasaten bai. Ez dakigu betik hola izen dan ala ez, baiñe gaur egun edadeko personak be hola ebalten daue:

BALDINTZIE *Ni alkatie **banitzon/banitzok**,
herri osue konponduko **neuken/neukek***

Iguela pasetan da galderatan, harridurazko esaldixetan eta agindduetan: leku batzuetan ez daue hikako formarik ebalten. Arrasaten normalien bai:

GALDERIE *Ze esan **jon/jok?** Etorriko **don/dok?**
HARRIDURIE *Horreik mozolo galantak **dittun/dittuk!**
AGINDDUE *Hi, etorri **hai hona!*****



Genero-marka bako aditzek

Badauz hikako forma batzuk mutillendako eta neskandako bardiñek dienak: *haz, habil, haut, hator, hoie, hau...* genero-marka bako aditzek die. Bixendako balixo daue.



Hika gabitzela, beste aditz askotan neska/mutil bereizketie egitten danez, batzuk Hlren bigarren marka bat gehiketako biherria sentiduten daue, neskai zuzendutako aditzetan (-na-), genero-markie falta dalakuen: *hitzen/hitzenan, husten/hustenan...*

ADITZ-TAULAK: IRIZPIDIEK

Aditz nagusixek

Gehixen ebalten dien aditzek batu dittugu liburuxka honetan, ez danak. ZUEIK personiarekin lotutako formak be ez dittugu sartu, ezin dielako hika esan.

Aldaerak

Adizki batzuk modu baten baiño gehixagotan jaso dittugu. Normala da aldaerak egotie: auzo batetik bestera aldaketak egoten die eta baitte auzo bakar baten be, etxetik etxera. Ohikuek die o/u aldaketak (zonan-zunan); a/e aldaerak (bajatozak-bajatozek) edo -au/-ou aldaerak be bai NOK=GUK kasuetan (juau-juou)... Eta ezin, ba, tauletan danak ifiñi!

Forma oker batzuk be nahiko zabalduite dauz (adibidez, oraiñaldiko formie + -en: dustat > dustaten). Forma jatorrenak aukeraketan saiatu gare.



Esan eta idatzi, desberdin

Aditz-taula honein helburue ahozko ebalerie da. Horregaittik, idatzizkotik ahozkoa asko aldaketan dien formak ahoz esaten dien moduen datoz taulatan: adibidez, *nagon > nan, jaukagu>jaukau, juagu> juau...* Berba egitteruzkuen jaten dittugun konsonantiek eta silabak, barriz, parentesi artien ifiñi dittugu: *ga(u)z, do(g)u, ja(u)zenan, ja(u)zan...*

Hala be, kontuen euki biher dogu berbak alkarketaruzkuen letra gehixago be jaten dittugula, eta hori ez dau aditz-taulan jarterik. Adibidez:

Emungo dumat/dustat > emungunat/emungustat
Egin egik > Eiñik
Ez + jauan > etxauan
Ez + jakiñat > etxakiñat



NOR

Orañaldixe

Naz > non / nok
Za > haz
Da > don / dok
Gare > gaittun / gaittuk
Die > dittun / dittuk

Lehenaldixe

Ni(n)tzen > ni(n)tzonan / ni(n)tzuan
Ziñen-Zitzen > hi(n)tzenan / hi(n)tzen
Zan > zonan / zuan
Gitzen > gitzonan / gitzuan
Zien > zittunan / zittuan

ASPERTU EİN
NITZONAN
LEHENGUEN
ZİNIEN

AKTORİE
EZ ZONAN HİRE
GUSTOKUE TA...



NOR-NORI (NOR: Ha/Hareik bardin)

Orañaldixe

Jat > jaten / jatek
Jatzu > jan / jak
Jako > jakon / jakok
Jaku > jakun / jakuk
Jak(i)e > jak(i)ene / jak(i)ek*

Lehenaldixe

Jaten > jatenan / jatan
Jatzun > janan / jatan
Jakon > jakonan / jakuan
Jakun > jakunan / jakuan
Jak(i)en > jakonen / jakien

* jakuene/jakuek eta jatene/jatek be ebalten die

ETORRI JAN
HILLEROKO
BISIITTIE?



ETORRI JATEN, BAI



NOR-NOK

Oraĩaldixe

NI

Nozu > non / nok
Nau > naixon / naixok
Naue > naixone / naixuek

HI

Zaut > haut
Zau > hau
Zauau > hauau
Zaue > haue

HA

Dot > jonat / juat
Dozu > don / dok
Dau > jon / jok
Do(g)u > jonau / juau
Daue > jone / juek

GU

Gai(tte)zu > gaittun / gaittuk
Gau > gaixon / gaixok
Gauē > gaixone / gaixuek

HAREIK

Dittut > jittunat / jittuat
Dittuzu > dittun / dittuk
Dittu > jittun / jittuk
Dittu(g)u > jittunau / jittuau
Dittue > jittune / jittuek

Lehenaldixe

Nindduzun > ninddunan / nindduan
Nindduen > ninddunan / nindduan
Nindduen > ninddunen / nindduen

Zinddudan > hinddu(da)nan / hinddu(d)an
Zindduen > hinddunan / hindduan
Zinddugun > hindduna(gu)n / hinddua(gu)n
Zindduen > hinddunen / hindduen

Neuen > naixonan / naixuan
Zeuen > heuanan / heuan
Euen > jonan / juan
Geuen > gaixonan / gaixuan
Euen > jonen / juen

Gindduzun > ginddunan / gindduan
Gindduen > ginddunan / gindduan
Gindduen > ginddunen / gindduen

Nittuen > nittunan / nittuan
Zittuen > hittunan / hittuan
Zittuen > jittunan / jittuan
Gittuen > gittunan / gittuan
Zittuen > jittunen / jittuen



NOR-NORI-NOK (NOR: Ha/Hareik bardin)

NIK Oraiñaldixe

Dutsut > dunat / dustat
Dutset > jutsenat / jutsat
Dutsiet > jutsenet / jutsiet

HIK

Dustezu > dusten / dustek
Dutsezu > dutsen / dutsek
Duskuzu > duskun / duskuk
Dutsezu > dutsene / dutsiek

HAREK

Dust > justen / justek
Dutsu > dun / dusk
Dutso > jutsen / jutsek
Dusku > juskun / juskuk
Dutse > jutsene / jutsiek

GUK

Dutsuau > dunau / dustau
Dutsau > jutsenau / jutsau
Dutsau > jutsenau / jutsau

HAREIK

Dustie > justene / justiek
Dutsue > dune / dustie
Duts(i)e > jutsene / jutsiek
Duskue > juskune / juskuek
Duts(i)e > jutsene / jutsiek

Lehenaldixe

Nutsun > nunan / nustan
Nutsen > nutsenan / nutsan
Nuts(i)en > nutsenan / nutsian

Ustezun > hustenan / hustan
Zutsen > hutsenan / hutsan
Uskuzun > huskunan / huskuan
Zutsen > hutsenan / huts(i)an

Usten > justenan / justan
Utsun > unan / ustan
Utsen > jutsenan / jutsan
Uskun > juskunan / juskuan
Uts(i)en > jutsenen / juts(i)en

Gutsun > gunan / gustan
Gutsen > gutsenan / gutsan
Guts(i)en > gutsenan / gutsan

Ustien > justenan / justen
Utsuen > un(i)en / ustien
Utsien > jutsenen / juts(i)en
Uskuen > juskunen / juskuen
Utsien > jutsenen / juts(i)en



MIKELEK EMUN UNAN NOTIZIA, EZTON?

BAĪ, EGUNDOKO SUSTUE EMUN JUSTENAN!

EUKI

Orañaldixe

Dauket > jaukenat / jaukat
Dauketzu > dauken / daukek
Dauko > jauken / jaukek
Daukou > jaukenau / jaukau
Daukie > jaukene / jaukiek

Lehenaldixe

Neuken > neukenan / neukan
Zeuke(tzu)n > heukenan / heukan
Euken > jaukenan / jaukan
Geuken > geukenan / geukan
Eukien > jaukienan / jaukien


ETORRI

Orañaldixe

Nator > naton / natok
Zatoz > hator
Dator > jaton / jatok
Gatoz > gatozan / gatozak
Datoz > jatozan / jatozak

Lehenaldixe

Netorren > netorrenan / netorran
Zetozen > hetorrenan / hetorren
Etorren > jatorrenan / jatorran
Getozen > gatozenan / gatozan
Etozen > jatozenan / jatozan



Hik badauken
kontzertura
fateko asmorik?

ASMUE BANEUKENAN,
BAIÑE OIN ETXAKIÑAT
ZE EİN



PARKATU,
BERANDU NATOK

LO GUTXI EİNDE
HATOR HI,
PARRANDERIOI!

IBILLI

Oraĩnaldixe

Nabil > nabin / nabik
Zabitz > habil
Dabil > jabin / jabik
Gabitz > gabitzan / gabitzak
Dabitz > jabitzen / jabitzek

Lehenaldixe

Nebillen > nebillenan / nebillan
Zebitzen > hebillenan / hebillen
Ebillen > jabillenan / jabillan
Gebitzen > gebitzenen / gebitzan
Ebitzen > jabitzenen / jabitzan

ZE JABIK HORI,
HAINBESTE ZARATAKIN

ETXIEN OBRETAN
JABITZEN



EGON

Oraĩnaldixe

Nau > nan / nak
Za(u)z > hau
Dau > jan / jak
Ga(u)z > gazen / gazez
Da(u)z > jazen / jazek

Lehenaldixe

Nenguen > ningunan / ninguan
Zinguzen > hingunan / hinguan
Euen > jauenan / jauan
Ginguzen > ginguzenan / ginguzan
E(u)zen / azen > ja(u)zenan / ja(u)zan

ZUEIK FUTBOLA IKUSTEN? ETXAUENAN
BESTE EZER, ALA?

ASPERTUTE GINGUZENAN
PELIKULA TXAR BAT IKUSTEN



FAN

Oraĩaldixe

Noie > naixuen / naixuek
Zoiez > hoie
Doie > joien / joiek
Goiez > goiezan / goiezak
Doiez > joiezan / joiezak

Lehenaldixe

Ninndoien > najoienan / najoian
Zinddoiezen > hinddoienan / hinddoian
Oien > joienan / joian
Ginddoiezen > ginddoiezenan / ginddoiezan
Oiezen > joiezenan / joiezan



JAKIN

Oraĩaldixe

Dakit > jakiñat / jakixat
Dakitzu > dakin / dakik
Daki > jakin / jakik
Dakigu > jakixenau / jakixau
Dakixe > jakixene / jakixek

Lehenaldixe

Nekixen > nekixenan / nekixan
Zekitzun > hekixenan / hekixan
Ekixen > jakixenan / jakixan
Gekixen > gekixenan / gekixan
Ekix(i)en > jakixenen / jakixen



EBALI (ERABILI)

Oraĩaldixe

Dabit > jabixenat / jabixat
Dabitzu > dabin / dabik

Dabil > jabin / jabik
Dabigu > jabixenau / jabixau
Dabixe - dabile > jabixene / jabixek

Lehenaldixe

Nebillen > nebillenan / nebillan
Zebillen - zebitzun > hebillenan / hebillan
Ebillen > jabillenan / jabillan
Gebillen > gebillenan / gebillan
Ebill(i)en > jabill(i)enan / jabill(i)an



BALDINTZIE ETA ONDORIXUE

NOR

Baldintzie

Banitz > banitzon / banitzok
Bazitze > bahitze
Balitz > balitzon / balitzok
Bagitze > bagitzon / bagitzok
Balitzez > balitzozan / balitzozak

Ondorixue

Nitzake > nitzaken / nitzakek
Zitzake > hitzake
Litzake > litzaken / litzakek
Gitzake > gitzaken / gitzakek
Litzakez > litzakezan / litzakezak



EGIXE!
KARIBEN EGONGO
GITZAKEN



AHALERIE

NOR

Oraĩaldixe/ hipotetikue

Neike > neiken / neikek
 Zei(n)ke > heike
 Leike > leiken / leikek
 Gei(n)ke > gei(n)ken / gei(n)kek
 Leikez > leikezan / leikezak

Lehenaldixe

Neikien > neikiñan / neikian
 Zeikien > heikian
 (Z)eikien > (z)eikenan / (z)eikian
 Geikien > geikenan / geikian
 (Z)eikien > (z)eikezenan / (z)eikezan

NOR-NOK

(NOR: Ha/Hareik bardin)

Oraĩaldixe/ hipotetikue

Neike > neiken / neikek
 Zeike > heike
 Leike > leiken / leikek
 Geike > geiken / geikek
 Leikie > leikene / leikiek

Lehenaldixe

Neikien > neik(i)enan / neikian
 Zeik(i)en > heik(i)enan / heikian
 (Z)eik(i)en-zeiketzun > jeik(i)enan / jeikian
 Gei(n)kien > geik(i)enan / geikian
 (Z)eikien-zeiketzuen > jeik(i)enen / jeikien

AGINTERIE

NOR

Hi zintzue izen	ha(d)i
-----------------	--------

NOR-NOK (NOR: Ha/Hareik bardin)

Hik ni etxera eruen	nain / naik
Hik ha etxera eruen	(e)in / (e)ik
Hik hareik etxera eruen	(e)in / (e)ik

NOR-NORI-NOK (NOR: sing/pl. bardin)

Hik niri ogixe/k emun	(e)iden / (e)idek
Hik hari ogixe/k emun	(e)ixon / (e)ixok
Hik guri ogixe/k emun	(e)igun / (e)iguk
Hik harei ogixe/k emun	(e)ixene / (e)ixuek

GUSTORA
 EİNGO NEUKEN
 HORİ BİAJİOİ!



EİN HEİKE, GURE
 BADOK!

ZİNTZUE
 İZEN HAI ETA
 ESAİDEN EGİXE



AURKIBIDIE

SARRERIE

Arrasateko hika poltsikuen	2
Gainbehiaren arrazoi nagusiek	2
Neskak hika egittie okerrague mutillek hika egittie baiño: zeatik?	3
Ikuspegi aldaketie: eskerrak!	3

HIKA: LAGUNARTEKO TRATAMENDUE

Hiru tratamendu edo erregistro ebali die Arrasaten	4
Zer emuten dau hikak?	4
Genero-markie: hikaren berezitasune	5
Biren arteko tratue	5

EBALERA-OHITTURAK

Zeiñekin bai eta zeñekin ez?	6
Gaur egungo ebalera okerrak	7

ADITZ GUZTI-GUZTIXEK HIKA?

ZU-ren ordez betik HI	8
Menpeko esaldixetan, HI danien bakarrik	9
Baldintzetan, galderetan eta aginduetan bai	10
Genero-marka bako aditzek	11

ADITZ-TAULAK:IRIZPIDIEK

Aditz nagusiek	12
Aldaerak	12
Esan eta idatzi desberdin	13

Aditz-laguntzailliek

NOR	14
NOR-NORI	15
NOR-NOK	16
NOR-NORI-NOK	18

Aditz trinkuek

EUKI	20
ETORRI	21
IBILLI	22
EGON	23
FAN	24
JAKIN	25
EBALI	26

Beste aditz batzuk

Baldintzie-ondorixue	27
Ahalerie	28
Aginterie	29



Testua: Badihardugu Euskara Elkarte
Diseinua eta ilustrazioak: Mirari Sagarzazu
Aholkularitza: Amaia Arana
Egilea: Badihardugu Euskara Elkarte



ARRASATEKO UDALA



Badihardugu

Deba Ibarreko Euskera Alkartia

Hi
MOLDETAN
HAZ HIKA?

ENON BA
MOLDAUKO!



<https://ahotsak.eus/proiektuak/arrasaten-hika/>